



MUSIKA

Zorroztu ezpatak!



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

XALBA RAMIREZ

Pop melodia itsaskorren gerrillariak. Vietcong txikiak nola, bata bestea- ren atzetik, tranpekin edo tranpa- rik gabe berriz harrapatzen gaituzte Ta- txersekoek. Himnogintzaren maisuak, lehen entzunaldian hala nabaritu ez arren, denboran iraungo duen beste dis- ko bat da honakoa, formazioan aldaketa eta guzti (Sergio Devesa baterian).

kostatuko zaigu mamira heltzea. Geru- zak batzuetan estali egiten baitu mamia.

Tatxersekoak ez dira bakarrik me- lodiaren artisauek. Iruditerian ere, goi gerlariak dira tatxerstarrak. Aurreko diskoan “gurea da lore sorta!” zen kon- tsigna, oraingoan, “ezpatak zorroztu!”. Kantu guztiek dute ezpatei distira ate- ratzearekin zer ikusirik: guda presta-



EZPATEI DISDIRA!

TATXERS

HUMO INTERNACIONAL, 2024

Disko honetan soinua landuagoa da. Bizpahiru gita- rra entzun daitezke, sintetizagailuren bat, efektuak eta abarrak. Aurreko diskotik bereizteko balio izan die, baina hasiera batean apur bat kriptikoagoa da, eta akaso gehiago

tzearekin, bakea irabazteko. Eta aldi berean, askotarikoak dira tematikak eta paisaiak. Irudien zizelkari apartak!

Akaso zarata gehiegirik gabe ondo posizionatzen den talde eredugarrie- netako bat da Tatzers. Euskal Herriko eta Espainiako *underground* eszenak berdin maite duen taldea (ez dute alfe- rrik argitaratu hau Humo Internaciona- lekin). Ez dute horrelakorik aldarrikatu beharrik, baina ez dituzu ikusiko euskal farandula berrian apur eske, promozio eta marketingaren esklabo. Ez dute ho- rrelakorik aldarrikatu beharrik, baina klase kontzientzia argi dute.

Bada, halaxe, berriz ere, zer zorte- koak gu Tatzersen garaikide izateaga- tik: “Eta esaidazu, gerra berriendako arma zahar horiek ez dutela balio. Eta esaidazu, bakea egiteko, nora joango garen armak zorroztera”. ●